 <p>Pasaia Portu Puerto de Pasaia</p> <p>Pasaia Portuko Agintaritza Autoridad Portuaria de Pasaia</p>	PREBENTZIO OROKORREKO JARRAIBIDEA	Jarraibide zk. PI-ZAI-001
	SARRERA, ZIRKULAZIO ETA EGONALDIEI ETA ARRISKU ETA PREBENTZIO-NEURRI OROKORREI BURUZKO INFORMAZIOA ZERBITZUKO PORTU-EREMUAREN IRISPIDE, BIDE ETA JABARI PUBLIKO KOMUNEAN	Ber. zk. 2
		Orria 1 / 2

Jarraibide hau nahitaz bete beharrekoa da zerbitzuko portu-eremuaren irispide, bide eta jabari publiko komunean, baina jabari publiko horren emakida edo baimena duten Erakundeek, halaber, beste jarraibide partikular batzuk ezar ditzakete enpresaburu Titular gisa edota Nagusi gisa, hala egokitzen denean. Portu-eremuan lan egiten duten Erakunde guztiek zainduko dute jarraibide hau bete dadila.

Gainera, jarraibide hau eguneratutik edukitzearen, Erakunde horiek Pasaia Portuko Agintaritzari azalpenak emango dizkiote bertan burutzen dituzten jardueren arrisku berezien inguruan, zerbitzuko portu-eremuaren irispide, bide eta jabari publiko komunean berekin batera aritu daitezkeen enpresetako langileei eragin diezaieketenean, eta bereziki, jarduerak batera egiteagatik larritu edo aldatu daitezkeen jardueren inguruan.

1. SARRERA, ZIRKULAZIO ETA EGONALDIRAKO ARAUAK

- 1.1. Zerbitzuko portu-eremura sartzeko, alde zuzenetik baimena jaso behar da.
- 1.2. Pasaia Portuko Agintaritzak Portuko Polizia zerbitzua du eguneko 24 orduetan, Tratatantiko Eraikinaren beheko solairuan kokatuta (*Pasaia Portuko Agintaritzaren telefonogunea: 943351844 / 943350022*)
- 1.3. Pasaia Portuko Agintaritzak, zerbitzuko portu-eremuan etengabe sartzen eta irteten ibiltzeko, sarrera txartelak banatzen ditu.
- 1.4. Sarrera txartelik gabe zerbitzuko portu-eremura sartzen diren pertsonak portuko sarreran identifikatu beharko dira. Horretarako, bertan, Pasaia Portuko Agintaritzako Portuko Polizia zerbitzuko pertsonala izango da.
- 1.5. Zerbitzuko portu-eremura sartzen diren pertsonak, euren jarduera betetzeko baimena eman dieten tokietara joan eta bertan bakarrik egon daitezke.
- 1.6. Baimen berezirik gabe, debekatua dago etengailuak edo instalazioetako beste edozein ekipu manipulatzeko (*kontaktu elektriko zuzen edo zeharkakoak jasateko arriskua*)
- 1.7. Aldez aurreko baimenik gabe ezin dira makinak edo ekipoa ukitu.
- 1.8. Portu barruko eta zirkulazio bideak libre egon behar dute.
- 1.9. Ibilgailuek eta pertsonak, bideetan edo jabari publiko komuneko lurzoruan aurki ditzaketen irregulartasunekin edo objektuekin (zuzeko takoak, metalezko zumitzak, txatarra, olio-orbanak, trenbideak, maldaxoak) kontu handiz ibili behar dute, egoera eta garbitasun egokian mantenduz (*personak lurrera erortzeko arriskua, objektuak zapatzeko arriskua eta objektu / tresnen aurkako kolpeak eta ebakiak jasateko arriskua*).
- 1.10. Bide eta jabari publiko komunaren inguruan dabilzan oinezkoek arreta berezia jarri beharko dute portu-eremuan dabilzan ibilgailuekin (kamioiak, automobilak, portu barrutik dabilen tren, makinak eta abar), *harrapatzeko arriskua* baitago. Bide ondoan egon behar badute, islatzaileak dituzten ondo ikusteko jantziak erabiliko dituzte.
- 1.11. Zerbitzuko portu-eremuan debekatua dago bizikletan ibiltzea eta edozein kirol egitea, halakoetarako berariazko baimenik ez badute.
- 1.12. Zerbitzuko portu-eremuan jarritako seinale-mota guztiak errespetatu behar dira.
- 1.13. Herri Administrazioen Organo eskudun nagusiak Pasaia Portuko ur-xaflaren kudeaketan Pasaia Portuko Agintaritzak eta Pasaia Itsas Kapitaintza dira (ontzien mugimendu, ainguratzeko eta atrakatzeko 1 eta 2 guneak) eta, hortaz, eurok emandako aginduak beteko dira gune horietan.

2. IBILGAILUAK (KAMIOIAK, MAKINERIA, TRENAK, AUTOMOBILAK...)

- 2.1. Ibilgailuak eta makinak baimendutako langileek erabili beharko dituzte. Langileok kualifikatuak eta beren lanaren arduradun izango dira. Halaber, zerbitzuko portu-eremuan diharduten enpresek jarritako Arau espezifikoko errespetatu beharko dituzte.
- 2.2. Portuko bide nagusian baimendutako gehieneko abiadura 40 km/h izango da; laneko zonetan edo nasetan, berriz, 15 km/h. Trenen gehieneko abiadura 10 km/h izango da.
- 2.3. Merkantzia garraiatzen duten ibilgailuek karga behar bezala lotuta zirkulatu beharko dute barruko bideetatik, karga lurrera ez erortzeko, eta soinua, hautsa edo bestelako arazorik ez eragiteko.
- 2.4. Ezingo dute karga egokitu edo sare-olana jarri, garraiolariaren segurtasuna bermatuko duten baliabiderik gabe. Lan horiek ezingo dituzte bideetan eta bazterbideetan egin.
- 2.5. Portu barruko trafiko-seinaleak errespetatu: abiadura-muga, nasetara sartzeko noranzkoak...
- 2.6. Merkantzia arriskutsuak garraiatzean, ADR bete beharko dute eta arauak eskatutako dokumentazioa izango dute. Dagokionean, RID beteko da.
- 2.7. Bideetan, laneko zonetan edo nasetan dauden garraiolariak eta langileek orokorrean, islatzaileak dituzten ondo ikusteko jantziak eraman behar dituzte.
- 2.8. Zerbitzuko portu-eremuko aparkalekuetan bakarrik aparka daitezke.
- 2.9. Trenbideen gainean eta trenbidea gurutzatzen den tokietan, trenak du lehentasuna.


3. LANEKO ZONETARA, NASETARA ETA BILTEGIETARA SARTZEA

- 3.1. Debekatua dute laneko zonetan edo nasa eta biltegitan sartzea jarduerarekin zerikusirik ez duten pertsona eta ibilgailuek, baldin eta horretarako baimenik ez badute. Edozein kasutan, ez dute zintzilikatutako kargen eta/edo garabien mugimenduek hartzen duten erradioaren azpian jarri behar (*askatutako objektuak erortzeko arriskua, eta mugitzen ari diren objektuen aurkako talkak izateko eta kolpeak jasateko arriskua*), ez eta mota desberdinetako ibilgailuen igoeraz irismenean [kamioiak, ibilgailuak, barne-zirkulazioko tren, makineria (garabi automobilak, jasmakinak, zamaketa-palak, tobera mugikorak, iraulki-kamioiak...)] (*harrapatzeko arriskua, objektuek harrapatzeko edo objektuen artean harrapatuta geratzeko arriskua eta makineriaren iraulketak harrapatzeko arriskua*) edo arrazoi gizatiar, teknologiko edo meteorologiko desberdinenengatik *higitze, erortze eta eraiste arriskua* sor dezaketen material pilaketan irismenean ere.
- 3.2. Portuko uren ertzera hurbiltzean kontu handia izan, *itsasora erortzeko arriskua* baitago.
- 3.3. Debekatua dago laneko zonetan edo nasetan aparkatzea.
- 3.4. Haize handiko egunetan eta merkantziak soltean eta hautsa duten elementuak deskargatzen ari diren zonetan, segurtasuneko betaurrekoak eta maskarak erabiltzea gomendatzen da, deskargatzen ari diren *elementuen puskak eta/edo partikulak* begietan, sudurrean edo ahoan sar ez daitezkeen.

4. LARRIALDIA

- 4.1. Pertsona lesioa eragin dien larrialdien bat (istripua) gertatu bada: lasai egon eta istripua izan duena lasaitzen ahalegindu. Eragindako langilearen arduradun hurbilenari jakinarazi, hark egoki den laguntza antolatuko dezan.
- 4.2. Anbulantzien, suhiltzaileen eta Ertzaiztaren laguntza eskatzeko harremanetarako telefonoa **112** zenbakia da.
- 4.3. Erakunde bakoitzak antolatuta duen prebentzio-ereduak finkatuta eduki behar du nola eskaini behar den lehen sorospena, edozein eratako larrialditan. Nolanahi ere, erabiltzaileei jakinarazten zaie Tratatantiko Eraikinaren beheko solairuetan Pasaia Portuko Osasun Zentroa kokatua dagoela, eta astelehenean ostiralera irekita dagoela 7:00etatik 21:00etara (Telefonoa: 943350147 edo 606790997), gai honetan Erakunde bakoitzari dagozkion erantzukizunen kaltetan izan gabe.
- 4.4. Edozein arazo, larrialdi edo anomalia Pasaia Portuko Agintaritzaren Portuko Poliziari jakinarazi beharko zaio lehenbailehen, hala egokitzen denean dagozkion jarduerak abian jarri ahal izan daitezkeen. (Telefonoa: **943353364**).
- 4.5. Zerbitzuko portu-eremuan larrialdi-kasuren bat gertatzen baldin bada, eta Erakunde bakoitzeko arduradun egokiek horrela adierazten badute, alarma-deiarekin edo horrelakorik gabe, langile guztiek eten egin beharko dituzte lanak, segurtasuneko baldintzetan utzi. Erabiltzen ari diren ekipoa deskonektatu egingo dituzte eta eremu horretatik irtengo dira leku seguru batera joateko, eragindako eremu horretatik kanpo (Erakunde desberdinen larrialdi-planetak topaguneetara). Hori guztia, behar den lasaitasunarekin.
- 4.6. Portuko instalazioek suteak itzaltzeko sistemak dituzte: ur-hartuneak zerbitzuko portu-eremuko gune desberdinetan, sute-aho ekipatuak eta su-itxalgailuak eraikinetan. Ekipu horietakoren bat erabiliz gero, Pasaia Portuko Agintaritzaren Portuko Poliziari horren berri eman.

Dokumentu hauek ezin dira kopiatu eta erreproduzitu PPAtik kanpo erabiltzeko, aurrez horretarako baimenik izan ezean.

 <p>Pasaia Portua Puerto de Pasaia</p> <p>Pasaia Portuko Agintaritza Autoridad Portuaria de Pasaia</p>	PREBENTZIO OROKORREKO JARRAIBIDEA	Jarraibide zk. PI-ZAI-001
	SARRERA, ZIRKULAZIO ETA EGONALDIEI ETA ARRISKU ETA PREBENTZIO-NEURRI OROKORREI BURUZKO INFORMAZIOA ZERBITZUKO PORTU-EREMUAREN IRISPIDE, BIDE ETA JABARI PUBLIKO KOMUNEAN	Ber. zk. 2
		Orria 2 / 2

5. INGURUMENA

- 5.1. Zerbitzuko portu-eremuan lan egiten duten Erakunde guztiek ingurumena babesten dela bermatu beharko dute, eta horretarako, ekidin egin beharko dute hondakinak bertan uztea, konponketak egin bitartean gasak atmosferara igortzea, likido kutsagarriak isurtzea, lurzorua kutsatzea eta abar.
- 5.2. Edozein eratako hondakinak (arriskutsuak, geldoak, hiri-hondakin solidoak edo parekagarriak) sortzen dituzten Erakunde guztiek horiek jaso eta erretiratu egin beharko dituzte.
- 5.3. Ez bota ezer kutxatiletara, aldez aurreko baimenik gabe.
- 5.4. Energia-baliabideak ahalik eta ongien erabili, ahal den guztietan (adib.: ez utzi ekiporik eta instalaziorik martxan, beharrezkoa ez denean).
- 5.5. Isurketak, ihesak, ingurumen-istripuak egonez gero, arduradun hurbilenari jakinarazi, eta hark egoki den jarduera antolatuko du. Nolanahi ere, Pasaia Portuko Agintaritzaren Portuko Poliziarri jakinarazi.
- 5.6. Ez dago baimenduta zerbitzuko portu-eremuan kokatutako edukiontzietara inolako isurketarik egitea, berariaz baimendutako kasuetan izan ezik.

6. AZKEN OHARRAK

- 6.1. Laneko arriskuen prebentzioaren alorrean eskumena duten Herri Administrazioetako Organoak hauek dira: *Lan Ikuskaritza eta Gizarte Segurantzza*, berari baitagokio lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia bete dadila zaintzeko eta kontrolatzeko lanaren eskumena, eta halaber, prebentzioaren alorrean lan-baldintzetan eragiten duten arau juridiko-teknikoak, eta *Osalan*.
- 6.2. Emakiden eta baimenen titularrei dagokie lan-zentroko titular gisa enpresa-jarduerak koordinatzeko obligazioak betetzea.
- 6.3. Emakida edo baimenen erregimenean eman ez diren eremuetan, merkantziak kargatzeko, estibatze, desestibatze, deskargatzeko edo ontziz aldatzeko edo bidaiariak ontziratzeko edo lehorreratzeko eragiketak egiten badira, edo merkantziak jaso, biltegitatu, bildu eta horizontalki garraiatzeko eragiketak egiten badira, koordinazio-obligazioak betetzen direla zaintzaren erantzukizuna dagokion *zerbitzua eskaintzen duen enpresarena* izango da.
- 6.4. Eskainitako zerbitzuen ustiapen-baldintzen orriak oinarritzat harturik (baldintza-orri arautzaileak edo baldintza orokorrenak, preskripzio edo baldintza berezien orriak eta horiei dagozkien administrazio-titulu gaitzaileak), lan-jardueraren zuzendaritza, antolakuntza eta kontrola portu-eremuan *zerbitzuak eskaintzen dituen enpresaren* eskumena da.
- 6.5. Zerbitzuko portu-eremuan lan egiten duten Erakunde guztiek laneko arriskuen prebentziorako legeria bete beharko dute, eta bereziki, hauxe egin beharko dute:
 - Ordezkarri Baimendu bat izendatu behar dute jarraibide hau zaintzeko eta betearazteko, berarekin batera jardun dezaketen gainerako Erakundeetako Ordezkariekin koordinatuz eta elkarlanean arituz.
 - bere langileei, hala egokituz gero, zerbitzuak azpikontratatzeko kontratuan eskatutako Babes Kolektibo edo Indibidualerako Ekipoak (homologatuak) eskaini behar dizkie.
 - laneko ekipoei eta ibilgailuei dagozkien mantentze-lanak egin behar dizkie, ekoizlearen jarraibideekin edo aplikagarri zaion araudi bereziarekin bat etorriz.
 - Bere langileei beharrezko hezkuntza edo trebakuntza eskaini behar die lana hasi aurretik, edo izendatutako lan bat aldatzen duten zirkunstantziak gertatzen direnean (ahaztu gabe fase eta eragiketa bakoitza egiteko modu zuzen eta seguru bat dagoela).
 - Pasaia Portuko Agintaritzak bere esku jarri dituen baliabideak erabiltzen baldin baditu (korrante elektrikoaren hartuneak, ur-hartuneak eta abar), Pasaia Portuko Agintaritzari jakinarazi behar dizkio horiek erabiltzearen ondorioz eragin ditzakeen kalteak, segurtasun-egoerarik onenean mantentzeari begira.
- 6.6. Pasaia Portuko indarreko Zerbitzu, Polizia eta Erregimen Araudiak xedatutakoa beteko da, eta edonola ere, Pasaia Portuko Agintaritzaren Portuko Poliziaren langileek jarraibide hau betetzearekin loturik ematen dituzten oharrak errespetatuko dira.

7. ZERBITZUKO PORTU-EREMUA. ERREFERENTZIAKO INFORMAZIOA (PLANOA)

